



noaua

SU ETA JABE!

**Uztailaren 1etik
aurrera, Zubietan
ere atez ate**

**Igandean Donostiara
joateko deia egin du
Gure Esku Dago-k**

**Larunbat honetan,
Usurbil KEn
egun handia**



San Juan jaiak, udaren iragarle

**bulegorako altzariak
eta hornidura**

**paper dendarako
artikuluak**



Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892
Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com
www.manpel.com



**jostailu denda
xirinbolo**

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

**12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan

Herritarrek txistuka, errausketaren aurka

«Hamaika aldiz esan diegu ez dugu la errausketarik nahi, hamaika aldiz errepikatu diegu ez dugula errauste plantarik behar, baina beste behin esan behar badiugu ere, ez gara isilik geratuko». Eta hala egin zuten aurreko larunbatean ere. Datozen lau urteotan, herrialde mailako erakundeek gidaritza izango duten eragile politikoek errauste planta egitasmoa eraikitzeke erakutsi duten asmoaren aurrean, gipuzkoarrak ez ziren isilik gertatu. Kalera atera ziren.

Oihu, baina batez ere txistu artean errausketari ezetz esan zioten, aurreko larunbatean Donostiako Gipuzkoa plazan deitua zegoen pitadan bildu ziren gipuzkoarrek.

Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartek, Errausketaren Aurkako Plataformaren Koordinadorak, Eguzkik eta Greenpeacek deitu eta babesturiko mobilizazioa, Foru Aldundiko egoitzaren pa-



Aurreko larunbatean herritar ugari batu zen Gipuzkoa Plazan, tartean, usurbildar batzuk.

rean egin zen. "Eraikin honetako horma artean gera dadila gure txistuen oihartzuna, etor daitezkeen agintariak, kutsaduraren bideari berrekiten badiote aurrez

aurre edukiko gaituztela oroit dezaten", adierazi zuten deitzaileek.

Mobilizazioan, besteak beste, usurbildarrek parte hartu zuten.

Laburrean

Ostiral honetan amaituko dute ikasturtea Udarregin

Ostiral hau azken klase eguna dute Udarregi Ikastolako ikasleek. #Kilometroak15 ekimenak berezi egin duen ikasturtea amaitzeaz dute beraz. Iraila hasierako itzulera are bereziagoa izango dute ordea, urriaren 4ko jaialdiaren aurrarian egongo gattunk eta.

Artzabalgo pintura taldekoen erakusketa Sutegin

Urtean zehar eginiko lanen erakusketa ipini-ko dute Sutegin. Ekainaren 19tik 21era egongo da ikusgai, honako ordutegian. Ostiralean: 15:30etatik aurrera, 19:00etan inaugurazioa. Larunbatean: goizez 10:00-13:00. Arratsaldeaz 17:00-20:00. Igandean: 10:00-13:00.

Hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoek eskubideen alde, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko elkarretaratzea ekainaren 26an, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Ekimen gehiago iragarri dituzte, uztailearen 1etik 5era antolatuko diren Santixabel jaien baitan.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noqua.eus /// www.noqua.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzio@noqua.eus:

Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Ni jaio nintzen urtean

Ni jaio nintzen urtean, Poliziak Eus-takio Mendizabal Txikia ETako buruzagia hil zuen.

Espainiako Gobernu-ko presidente zen Carrero Blanco almirantea hil zuen ETak.

Errefuxiatuen aldeko go-se-greba egin zen Baionan.

Bi lehegailuk eztanda egin zuten Donostiako Kresala elkarte euskaltzalean. Hirugarren atentatua zuten.

Ni jaio nintzen urtean, Espainiako Informazio eta Turismo Ministerioak 25.000

pezetako diru-zigorra ezarri zion Zeruko Argia-ri “Euskal unibertsitate eta eliza independenteak defendatu eta aldarrikatzeagatik”.

Zabal iritzi-albizkaria sortu zen Baionan. Beñat Oihartzabal, Jokin Apalategi, Paulo Iztueta eta Gexan Alfaro izan ziren, besteak beste, bultzatzaileak. Izen bereko liburudenda ere sortu zuten.

Ni jaio nintzen urtean, Udako Euskal Unibertsitatea erakundea sortu zen, Euskal Herrian euskal unibertsita-

tearen sorrera bultzatzearen.

Ni jaio nintzen urtean, Esti-txuk diskoa plazaratu zuen gaztelaniaz. Musika-kritika-riak kexu ziren euskal kan-tuak erdal medioetan jartzen ez zirelako, eta prentsan eman ziren justifikazioen ara-bera, “euskal kantariak profe-sionaltasun bati atxiki behar badiote, nahi ta nahiezkodute erdaraz kantatzea”.

Ni jaio nintzen urtean, ar-gitaratu ziren Joxan Artzek Zumeta pintorearekin elkar-lanean sortutako “...laino

guzien azpitiketa ...sasi guztien gainetik...” oler-ki-liburua eta Txillardegi-ren “Euskara batua zertan den”.

“Poxpolin. Ume-kantak” 3-4 urteko haurrentzako 51 kantuz osaturiko bilduma jarri zen salgai.

Ni jaio nintzen urtean, Na-txo de Felipek Oskorri taldea sortu zuen. Eta kantu askok eternitatea ezagutu zuten. Ez dut kantu batentzat kon-dena gozoagorik ezagutzen.

Hemerotekako xehetasunak, Gure Men-dea (Argia, 2000) liburutik hartuak.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

Langabeziak beherantz egin du, aldi baterako enplegua nagusi da ordea

Langabezia-tasa behe-rantz hirugarren hilabe-terez jarraian Usurbilen. Estatuko Enplegu Zerbitzuak 325 langabetu zenbatu zituen maiatzean, udalerrri honetan, apirilean baino 6 langabetu gutxiago. Azken hiruhilekoan, 347tik 325era murriztu da lanik gabeko herritarren kopurua.

Baina hemen txanponaren beste alde; lana aurkitu duten gehienek, aldi baterako sinatu dute kontratua. Maiatzean 323 lan kontratu erregistratu ziren.

Horietatik ia denak, 302, aldi baterako. Desoreka nabaria baita, gizon eta emakumeen artean. 183 gizonetzko kontra-tatu ziren, 140 emakumezko. Usurbilgo langabetuak nagusi, 25-44 urte arteko emaku-meia izaten segitzen du.

Beherakada orokorra

Usurbilen bezala, Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere behera egin du langabeziak. Apirilean baino 119 langabetu gutxiago bailaran maiatzean (4.533), eta 1.363 gu-txiago Gipuzkoan (44.425).

Kiroldegiko mantentze lanetarako langile bat kontratatzeko deialdia

Oiardo Kiroldegiko insta-lakuntzen irauntzaile bat erre-lebo kontratu bidez hartzeko lan deialdia argitaratu du Usurbilgo Udalak. Lehiaketa-oposi-zio bidez hautatuko da langile berria.

“Usurbilgo kirol instalazioak egoera onenean mantentzea. Kirol instalazio eta zerbitzuen funtzionamendu egokia ber-matzea”, horiexek aukeratuko

den langileak izango dituen zeregin nagusiak. Eskabideak udal erregistroan aurkeztu be-harko dira, ekainaren 9tik zen-batzen hasita 15 lan eguneko epearen barruan.

Oinarriak usurbil.eus web orrian edo udaletxean

Lan deialdiaren oinarriak eta eskabideak aurkezteko inpri-makiak usurbil.eus atarian edo ekainaren 8ko Gipuzkoako Al-dizkari Ofizialean kontsultatu eta eskuratu ditzakezue.

* Ika Mika atalarako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: ekainak 26. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 22.

Uztailaren 1etik aurrera, Zubietan ere atez ate

Zubietan ere hondakinen bilketa sistema aldatzera doaz; atez atekoaren lehen fasea jarriko dute martxan, uztailaren 1etik aurrera, Santuenetik herri erdigunera arteko eremuan. Udalak asteotan bizi-lagunekin adostu ditu zintzilika-gailuak jartzeko lekuak. Oro har, errepide nagusiko bidegurutzeetan kokatuko dira.

Zintzilikagailuak jarrita, bilketa sistema berrirako ontzien banaketa dator orain. Datorren astean egingo du Udalak banaketa; ekainaren 25ean eta 26an, 17:00-20:00 artean Kaxkapen. Herritarrek bere bizilekuko helbidea eman eta trukean, organikoa eta erreusa gaika biltzeko ontziak jasoko dituzte; organikoa konposta-tzen dutenek organikoaren-tzako kubo bakarra; bi kubo, organikoa konpostatzen ez dutenentzat. Honez gain, bilketari buruzko informazio guztia izango duen gida bat eta imana ere banatuko dute. Baliabide guztiok aipaturiko



Ontzien banaketa datorren astean egingo da: ekainaren 25ean eta 26an arratsalde, 17:00-20:00 artean Kaxkape egoitzan.

LARRIALDI GUNEA

“Ekainaren 30era arte larrialdi gunea baliatzen segi ahalko dute. Uztailaren 1ean sistema berria abiatzarekin batera, larrialdi guneko giltzak desaktibatuko zaizkie”

egun, ordu eta lekuetan jaso ezin dituenak, gerturatu dadila Usurbilgo Atez Ateko bulegora. Bertan emango zaizkie ontziak eta informazio gida.

Giltzen desaktibazioa

Ekainaren 30era arte larrialdi gunea baliatzen segi ahalko dute, datorren hilabetetik aurrera atez ateko bilketako erabiltzaileak izango diren zubietarrek. Uztailaren 1ean sistema berria abiatzarekin batera, larrialdi guneko giltzak desaktibatuko zaizkie hondakinak atez ate bilduko zaizkienei.

Egunero hondakin zati bat bilduko zaie zubietarrei, goizez. Usurbilen bezala, Zubietak ere Usurbilgo bilketa

egutegi bera izango du. Aipatu moduan, uztailaren 1ean abiatuko da, baina ez Zubietan osoan, lehen fase honetan, Santuenea aldetik hasi eta kaxkora arteko eremuan dauden etxeetan. Badira tartean, Donostiako eremuan egon arren, hala nahi dutelako atez ateko bilketan parte hartuko duten herritarrek. Udalak, hain zuzen, Usurbil aldeko herritar guztiei bermatuko die zerbitzua, baina aukera ematen die baita Santuenetik Kaxkora bitarte, Donostiako lurretan bizi direnei ere. Aukera eskaini eta baimena ematen dutenei ere beraz, hondakinak atez ate bilduko zaizkie uztailetik aurrera.

Argibideetarako:

Informazio edo argibide gehiagorako, hor duzue Atez Ateko bulegoa:

Doako telefonoa: 900 776 776. Ordutegia: 09:00-14:30 (astelehenetik ostiralera).

Helbidea: Puntapax kalea, 10 behe. Usurbil (20170).

E-maila: atezate@usurbil.eus

Zero zaborrerantz jorraturiko bidea, Greenpeacentzat eredugarri

Estatu espainiarreko ingurumenari buruzko Erradiografia modukoa osatu eta kaleratu du Greenpeace erakundeak txosten batean. Erkidego bakoitzeko alde positibo eta ezkorak nabarmendu eta lekuan lekuko ingurumen kalitatea neurtu du erakunde ekologistak. Hego Euskal Herriko datuak sartu ditu tartean.

Atez atekoaren eraginkortasuna

Geure inguruan bada zer hobetua Greenpeace erakundearen esanetan. Baina harro sentiarazteko arrazoirik ere badugu. Kaleratu duten txostenak eredugarritzat jotzen du Usurbilen eta Gipuzkoan azken urteotan sustatu den hondakinen

kudeaketa modua. EAE-n, ingurumen alorrean nabarmentzen dituen alderdi positiboen artean dago atez ateko bilketa sistema.

Gastuak, edukiontzien parekoak

Atez ateko bilketak eragiten dituen gastu ekonomikoez ere badu zeresanik Greenpeace-ek kaleratu duen txostenak. “Atez ateko bilketak ez du gastu handiagoa suposatzen. Bataz beste, edukiontzien sistemaren antzekoak dira, ia parekoak”, Greenpeace-en esanetan.

Erraustegia, herritarrek geldiarazia

Atez ateko bilketa soilik ez.

Mapa batean kokatu ditu aipatu erakundeak, ingurumena zaintzen laguntzen edo kalteztzen duten proiektu, azpiegitura edota herritarren jarrerak. Proiektu kaltegarrien artean, gugandik oso gertu kokatua zegoen bat. Zubietako erraustegiaz ari gara. Positiboki baloratzen du Greenpeace-en txostenak, geldiarazia dagoela aipatu planta, eta geldiarazia badago herritarren mobilizazioari esker izan dela. Kasu honetan, Zero Zabor mugimenduak eginiko lana goraiatzen du. “Zero Zabor Gipuzkoako Zubietako erraustegia geldiarazten lagundu eta alternatiba jasangarrien aldeko apustua egiten duen herri mugimendua

da”, halaxe aurkeztzen digu Greenpeace taldeak.

Fracking-aren aurka eta Natura 2000 Sarean

Bada Usurbil lotua egon eta alderdi positiboen artean nabarmentzeko beste konturik ere. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan guztira 56 udalerrira Greenpeace-en esanetan, “Fracking”-etik libre dauden udalerririak. Tartean Usurbil, herri sarrierako karteak dioten moduan.

Datu baikor gehiago. Erki-degoko lurraldearen %34,24 natur gune babestua dugu, Natura 2000 Sarean integratua dago. Tartean, lehengoratu berri den Aginagako Saria hezegunea.

“Babestua eta errespetatua sentitu naiz”

Zorte handikoa sentitzen naiz une honetan, Usurbilgo herriari nire ekarpena egiteko aukera izan dudalako, alkate bezala herrian babestua eta errespetatua sentitu naizelako, eta batez ere zuokin, taldeko kideekin lan egiteko aukera izan dudalako, azken lau urteotan Usurbilgo Udaleko alkate izan dugun Mertxe Aizpuruak agurrerako baliatu dituen hitzak dituzue.

Ekainaren 10erako deitua zegoen ezo-hiko osoko bilkura amaieran egin zituen adierazpenok Aizpuruak. Maitzaren 21eko plenoko akta onartzeko deitua zegoen hitzordua, azkena izan zen udalbatza osatzen duten 13 ordezkariatik bederatzirentzat. 2011-15 legegintzaldiaren itxiera ekitaldia izanik, azken aldiz hartu zuen hitza alkateak.

“Herriaren onerako aritu gara”

Pozik agertu zen Aizpuruak, askorako eman duten lau urteotan eginiko lanarekin harro, eta lasai, “tentsio gehiturik gabeko legegintzaldia aurrera” eraman ahal izan dutelako.

Krisialdi ekonomikoak baldintzaturiko legegintzaldia kudeatu behar izan duten arren, baikor agertu zen Aizpuruak lau urteon amaierako balantzean. Oreka eta errespetu lan egin dutela adierazi zuen eta inor mindu badute, barkamena eskatzeko baliatu zuen unea. “Gobernu taldetik herriaren onerako aritu gara. Herrigintzak funtsean duen motibazioak bultzatu gaitu. Eta dudarik gabe, lau urteotan Usurbil hobetzeko saiakerak, emaitzak eman ditu”, adierazi zuen.

Talde kideei: “Plazerra izan da zuekin lan egitea”

Esker hitzak izan zituen udal teknikari eta langileentzat, aldaketa askoko lau urteotan eskaini duten laguntza eta elkarlanagatik. Udal taldeei dagokieenez, Bildu eta Aralar bi taldeetan banatuta hasi eta batuta amaitzea positiboki nabarmendu zuen.

Zinegotzi bakoitzari “Lurra, lana, iza-na. Usurbilgo emakume baserriarren ahotsak” dokumentalaren cd-a eta liburua oparitu zieten. Udala uztera zihozzen zinegotziei zorta ona adierazi



Ekainaren 10ean bildu zen azken aldiz 2011-2015 legealdiko udalbatzarra.

zien alkateak. Geratzen direnei, “esker bikoitza, 4 urtez herriaren alde lanean aritu ondoren, konpromisoa berrestea benetan eskertzekoa baita”.

“Lasai eta pozik itzuliko naiz lantokira”

Modu berezian esker ona adierazi nahi izan zien, gobernu taldeko kideei. “Lan asko egin dugu. Merezi izan du, eta benetan, guztiaren gaineratik plazerra izan da zuekin lan egitea, zuek ezagutzea eta zuekin aritzea”, adierazi zien Aizpuruak, talde kide izan dituen zinegotziei. Alaitz Aizpuruak erantzun zion, eskerrak emateko. “Taldea lanean aritu gara, borondate on guztiarekin”, gaineratu zuen zinegotziak.

Bizipen askoko legegintzaldia izan dela adierazi zuen Mertxek. Askok ikasi duela. Hunkituta amaitu zituen adierazpenak. “Harro nago egindako lanaz, lasai eta pozik itzuliko naiz, duela lau urte utzi nuen lantokira”, bere ogibidera, Gara egunkarira.

Udalbatza, ia guztiz eraberritua

Aurpegi aldaketak nagusi, larunbatean osatu zen udalbatza berrian. Hamahiruko taldetik, 8 zinegotzi berri ditugu, bederatzigarren bat (EAJ-ko Andoni Atxega) udalbatzara itzuli da. Gainerako lau udal ordezkariak ezagunak ditugu, aurreko legegintzalditik datoz eta.

Udala utzi dutenak:

■ EHBildutik: Mertxe Aizpuruak, Josu Portu, Enara Arbizu, Joxe Ramon Furundarena, Eustakio Arrojeria, Jose Maria Rivadeneyra.

■ Hamaikabat: Luis Mari Ormaetxea, Josune Urkia.

■ PSE-EE: Ricardo Crespo.

Udalbatza berria:

■ EH Bildutik; 8 ordezkari izango ditu: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpuruak Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain.

■ EAJ-PNV udal taldeak 4 ordezkari izango ditu: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli.

■ PSE-EE-k ordezkari bakarra izango du: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Santueneko udal etxebizitzaren enkantea

Udalak enkantean salgai jarritako bi pisuak eskuratzeko eskaintzak, ekainaren 22ra arte aurkeztu daitezke. Agiriak eskuratzeko deitu 943 371 951 telefono zenbakira edo kontratazioa@usurbil.eus helbidera idatzi. Deialdi honetan parte hartzeko oinarriak, maiatzaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dituzue. Informazio gehiago: usurbil.eus

Xabier Arregi, alkate izendatu berri: “Elkarlanaren bidetik joko dugu”

Sorpresa handirik ez zen espero, eta ez zen ezustekorik izan. Xabier Arregi ofizialki alkate izendatu zutenean, zinegotzi denen txaloak jaso zituen. Hitza hartu eta, lehenik eta behin, gainontzeko hautetsi guztiak zoriondu zituen: “zorionak zinegotzi denei. Herriak aukeratua izatea handia da”.

Jende asko batu zen pasa den larunbatean, alkate berriaren izendatze-ekitaldian. Antzeko beste okasioetan ez bezala, giro sanoan igaro zen.

Alkate berria izendatzeko, zinegotzi hautatu berriek bozka eman behar dute. Boz altuan egitea erabaki zuten. Espero bezala, EHBilduko hautetsiak Xabier Arregiren alde agertu ziren; guztira zortzi batu zituen Arregik. EAJ-PNVkoek Josune Urkola babestu zuten; lau bozka batu zituen Urkolaren hautagaitzak.

Fermin Orue-Echevarria zinegotzi sozialistak, aldiz, zuri bozkatu zuen. Bitxikeria gisa beraz, PSE-EE eta EAJ-PNVren arteko akordioak ez zuen islarik izan Usurbilgo udalbatzaren osatze-ekitaldian.

Ohore eta ardura handia

Alkateari dagokion eserlekuan eseri zenean, hitzaldi hunkigarria eskaini zuen Xabier Arregi zubietarrak: “sentimenduen nahas-mahas honetan, ohore eta ardura handia da besaulki honetan esertzea, Mertxe



Xabier Arregik eskaini zuen hitzalditxoa noaueus web orrian topatuko duzue osorik. Bideoa txertatu dugu argazki ondoko QR kode horretan.

Aizpurua (jendartean zen alkate ohia), zuk hain ondo bete duzun espazio hau betetzea. Lehen izandako alkateak datozkit burura, eta oso ondo ditut gogoan...”. Emozioak gaindituta, eten egin behar izan zuen instant batean bere hitzaldia Arregik, eta Joxe Antonio Altuna alkate izan zenaren irudia etorri zitzaigun asorik gogora.

“Biltzeko joera izango dugu, ez bereizteko”

Herritarren borodantea agerian geratu dela nabarmendu zuen EHBilduko zerrenda-buruak: “udala gobernatzeko ardura EHBilduren esku utzi duzue. Adi entzun dugu herritarren hitza. Badakigu Usurbil ez dela EHBildu, mahai honek erakusten duen bezala. Horregatik, gure izenari eta izanari leial izanda, biltzeko joera izango

dugu, eta ez bereizteko joera. Jakingo dugu guztion artean etiketak eta siglak alde batera utzi eta pertsonen arteko tratua zaintzen. Komenientzia alderdikoen gainetik herriaren interes orokorra lehenesten. Oraitxetik esaten dizuet elkarlanaren bidetik joko dugula”.

“Gai izan gara alternatiba eraikitzaileak sortzeko”

Atez atekoa eta Kilometroak ere izan zituen gogoan bere hitzaldian: “gai izan gara alternatiba eraikitzaileak eta iraunkorrak sortzeko, nork bere ardurak asumitzeko. Meritua guztiona da, eta jasotako laudorioak ere asko eta ez nolanhikoak. Guztiontzat dira. Era berean errauste-planta bezalako azpiegitura kutsakorren inposaketa datorkigunean, denoi dagokigu horri aurre egitea”.

“Zintzo eta latz saiatuko gara lanean”

“Lehen konstituzio aurrean eman dugu hitza, legeak hala behartuta. Orain, kontzientziak aginduta, herriaren aurrean, hitz ematen dizuegu zintzo eta latz saiatuko garela lanean. Ilusioz eta gogoz, gure printzipioei muzin egin gabe herritarroi entzun eta partehartzeko aukerak emanez. Aniztasuna gure izatearen parte denez, eta parekidetasuna gure ipar, hitz ematen dizuegu herritarren artean ez dugula bereizketarik egingo eta eskubide sozial guztiak errespetatuak izan daitezen saiatuko garela”.

“Bizikidetzaz sendotzen ahaleginduko gara”

“Euskal Herri libre eta burujarberako bidean, erabakitze eskubidearen alde egingo dugu, bizikidetzaz sendotzen ahaleginduko gara, bai eta oraindik preso edo ihesean diren lagunak gure artera ekartzen ere”.

Jendarte justuago baten alde

“Hitza ematen dizuegu Usurbilen jendarte justuago, solidarioago eta zoriontsuago baten alde egingo dugula”.

Hitzaldia amaitu eta berehala, plenoan batutako herritar guztien eta zinegotzi denen txaloak jaso zituen Xabier Arregik. Segidan, makila beharrean, zumitza jaso zuen Mertxe Aizpuruaren eskutik.

Aurrekoei eskerrak, datozeinei animoak

Xabier Arregi alkate izendatu eta berehala, EHBildu koalizioak eskerrak emateko ekitaldi xume bat antolatu zuen udaletxe aurrean. Aurreko udal gobernuak kideei opari bana eman zitzaizkion. Eta hautetsi berriei, lanean aritzeko animoak eman zizkieten. Dantzarien agurra jaso zuten denek.



Omenaldia egin zieten azken lau urteotan Bildu eta Aralarreko hautetsi izan direnei.

Plenoetan, euskaraz jarduteko moduan

Fermin Orue-Echevarria PSEko zinegotzi berria euskalduna da. Donostiarra, hauxe izango du zinegotzi gisa lehen esperientzia. Gainontzeko hautetsi guztiak, EAJko bat izan ezik, euskaldunak dira. Beraz, datozen lau urteetan ere, udalbatzaren plenoak euskaraz egiteko moduan izango dira.



Fermin Orue-Echevarria (PSE) eta Josune Urkola (EAJ-PNV), Xabier Arregiren izendatzea txalotzen.

Usurbilgo emakume baserritarrei buruzko liburua salgai

10 eurotan eskura dezakezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan, "Lurra, Lana, Izana. Usurbilgo emakume baserritarren ahotzak" liburua. Dokumentalaren DVD-a doan banatuko da etxeetan. Ikusgai duzue baita Youtuben.

"Usurbilgo Udalak, Parekidetasun Sailaren ekimenez, herriko emakume baserritarrei ahotza eman nahi izan die. "Lurra, Lana, Izana. Usurbilgo Emakume Baserritarren Ahotzak" izeneko liburua eta dokumentala izan dira egitasmo horren emaitza. Bertan agertzen diren gogoeta, hausnarketa, pasadizo eta bizipenak azken urteotako Emakume Baserritarren unibertsoa islatzen dute, isilean eta ezkutuan mantendu den unibertsoa hain zuzen ere", adierazi dute Udaletik.

Beka deialdi batekin bideratu da egitasmoa. "2013. urtean Usurbilgo Udalak Emakume Baserritarren inguruko ikerketa bultzatzeko, 10.000 euroko Beka sortu zuen. Aurkeztutako lanen artean, Maitane Arnaiz Etxenautia eta Leire Urkidi Azkarragak aurkeztutakoa izan zen irabazlea. Emakume baserritarrei zor zitzaien ahotza ematea. Baserria mantendu bada, hein handi batean, emakumeei esker izan da eta horrekin batera doazen izaera, kultura eta ohituren



Lurra, Lana, Izana liburuaren azala. NOAUA!ko egoitzan eskura dezakezue, 10 eurotan.

transmisioaren babesleku izan dira Usurbilgo baserritar emakumeak. "Lurra, lana izana!" liburu-bideoan guzti horren testigantza jasotzen da. Hezkuntza, ohiturak, erlijioaren eragina, generoaren araberrakoa lan banaketa, bizitza publikoa... arlo desberdinak aztertu dira elkarriketen bidez", gaineratu dute Parekidetasun Sailetik.

Bi hitzordu, Matrakakekin

Proiektzioa eta bigarren kafe-tertulia antolatu dute:

Ekainak 18, osteguna

21:30 "Arrakala" dokumentalaren emanaldia frontoian. "Zer da heteroaraua? Nola egituratzen da bizi garen jendarteetan? Nola eragiten digu gure bizitzetan eta harremanetan?

Galdera horiei nolabaiteko erantzuna bilatu nahian, Arrakala proiektua jarri dugu martxan Topatu gazte proiektu komunikatiboak eta Bilgune Feministak elkarlanean". Informazio gehiago: arrakala.net

Ekainak 20, larunbata

11:00 Kafe-tertulia Potxoenean. Gaia: "Zapalkuntza sistema anitzak". "Nola osatu izan dugu gure emakume nortasuna eta zer du ikusteko horretan diskriminazioak eta bereizkeriak. Sistema sexistaz gain, gure emakume nortasuna zeharkatzen duten zapalkuntza sistema ugari badirela ikusiko dugu, hala nola, etorkin izatea, arraza beltzekoa izatea, lesbiana izatea, hirugarren adinekoa eta abar".

Antolatzailea: Matrakak.

"Transexualitatea ikusgai, ikasgai"

Lesbianengan jarri zuen arretagunea iaz Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak, eta aurtan, datorren ekainaren 28ko Harrotasun Egunaren atarian, transexualitatea hizpide duten hiru ekimen antolatu ditu. "Gay, lesbianen eta transexualen harrotasunaren egunaren inguruan oraindik lortzeaz dauden eskubideen borrokan murgiltzeko garaia izaten da. Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak, konpentsazio zentro bezala, borroka horien bozgorailua izan nahi du. Aurtan hain ezezaguna den transexualitatea langai hartuko du", adierazi du Elena Jimenez sexu aholkularitza guneako sexologoak. Erakusketa, emanaldiak, arreta zerbitzuak eta baliabideen gida prestatu dituzte.

"Errespetuz, gizon transexualak" erakusketa

Transexualitatearen gaiari heldu, gerturatu, gai honen inguruan dauden estereotipoak apurtu eta eskubideen inguruko eztabaia da sortzeko "Errespetuz, gizon transexualak" erakusketa ikusgai, ekainaren 22tik 29ra Sutegiko erakustaretoan. "Gure kolektiboaren gainean dauden estereotipoak apurtzera zuzenduta dagoen erakusketa bat da, izan ere hori ez baitator bat inola ere errealtatearekin".

Erakusketarekin batera, errealtate honetara hurbiltzeko arreta zerbitzua eskainiko du Sexune elkarteak erakustaretoan. Honez gain, Sutegi udal liburutegiak, transexualitatea jorratzen duten liburu, ipuin, artikulua, dokumental, pelikula... eskura jarriko ditu.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

txirriStra


TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

2015
SAN
JOANNAK
gehigarru benezia



Haurrak eta gazteak, asteburuko protagonistak

Kalezarko plaza prest jada, jai giroan murgildu nahi duten auzotar nahiz herritar guztiei harrera egiteko. Jai Batzordeak ostiral arratsalde honetan jaurtiko dituen lehen suziri hotsek emango diote hasiera bost eguneko jaiari. San Juanak abiatzeko auzotarrak izango dira festen erdigunean, ekainaren 24ra arte hainbat ekitaldietan izango diren moduan. Kalezartarrek kalezartarrak lehiakide izango dituzten jokoak ospatuko dira eta.

Ettxeko txikienak izango dira baita, asteburuko protagonistak; bai oilasko biltzaileetan larunbatean eta baita, iganderako eurei zuzenduta antolatu diren ekitaldietan ere. Etkez etxeko biran irtengo dira ekainaren 20an eta bueltan, bazkaritarako bilduko dira plazan. Otordurako txarte-



Herriko dantzariak larunbat honetan arituko dira, arratsaldeko 18:00etan hasita.

lak erosteko, asteazkenera arteko epea zegoen Kaffa kafetegian.

Haurrei zuzenduriko ekitaldi eskaintza zabalena halere, iganderako prestatu du Jai Batzordeak. Goizetik iluntzera, egun

osoko festa antolatu dute etxeko txikientzat eta haiek laguntzera joan eta azkenean festan murgildu ohi diren helduentzat ere. Umeen Eguna hasteko, krosa eta jolasak eguerdi partera arte. Eta

txokolate jana eta buruhandiak arratsaldean. DJ Burundak hautaturiko abestiek emango diote amaiera, oporrak hasi berriak izango dituzten Haurren Eguneko hitzorduei.

**ANDER
ARANZAZISTROKI**

**industri
garbiketarako
sistema eta
produktuak**

*Ondo pasa
San Joanetan!*

Goieko

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

☎ **667 680 236**

**UDARREGI
IKASTOLA**

gttunk

ondo pasa San Joanetan!

© 943 37 40 61

Suak argituko du San Juanetako azken gaua

Egunak ilundu orduko hainbat bazter argituko dira berriz ekainaren 23an. Aurten asteartez egokitu den urteko gau magikoenean, nonahi ikusiko ditugu sutzar-rak. Bai herria inguratzen duen landa eremuan, baita zenbait auzuneetan ere. Eta noski, sutzar “ofiziala” piztuko duten Kalezarren.

Euririk ez bada behintzat, gaueko 22:00ak aldera emango diote su, ondo pilatua izango duten materialari. Jai Batzordeko kideek, nahiz ekimen-era batutako herritarrek, bertso-lari eta trikitilarien laguntzaz, bazkalostetik auzoan zehar egingo duten jiraren baitan ospatuko da ekitaldia.

Goizaldera arte luzatuko dute tradizio luzea duen San Juanetako erronda hau.



Asteartean, San Juan bezperan, gaueko 22:00ak aldera piztuko dute sua.

Omenduak, San Juan Egunean

San Juan Eguneko ekitaldiekin agurtuko dira aurtengo festak. Bapo jan eta edanez. Sardina eta

sagardo dastaketa izango dugu ekainaren 24an. Aurretik, oraingoan ere hutsik egingo ez duten zenbait hitzordu: goizean zehar, meza nagusia, toka eta animaliekin plaza dantza batean jarri-

ko duen Gorritiren Showa. Eta arratsaldean, azken aldiz irtengo dira buruhandiak eta segidan, urtero auzotarrek auzotar talde bat omentzeko dantzatzan duten soka-dantza.



Ia astebetez luzatuko da jai-giroa

Ekainak 19, ostirala

18:00 Buruhandiak.

19:00 Auzotarren arteko jokoak.

23:30 Kontzertuak: Voltaia, Lauroba, Zesuma.

Ekainak 20, larunbata:

Oilasko Biltzaileen Eguna

09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria (txartelak Kaffa kafetegian eros daitezke, ekainaren 10etik 17ra bitartean).

16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da).

18:00 Herriko dantzariak.

Ondoren, buruhandiak.

00:00 DJ Gude.

Ekainak 21, igandea:

Umeen Eguna

10:00 XIII. Ume krosa.

11:30 Jolasak.

16:30 Tailerrak.

18:00 Txokolatada. Ondoren, buruhandiak.

19:00 DJ Burunda, dantzaldia.

Ekainak 23, asteartea:

San Juan bezpera

15:00 San Juan eskearen irteera.

22:00 San Juan sua.

Ondoren, eskearen jarraipena.

Ekainak 24, asteazkena:

San Juan Eguna

11:30 Meza Nagusia.

Ondoren, toka.


13:00 Gorritiren Showa.

17:00 Buruhandiak.

19:00 Soka Dantza.

Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegia-ren eskutik.

Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.



Voltaia, Zesuma eta Lauroba (argazkian) arituko dira zuzenean, ostiral honetan.



Asteartean piztuko da San Juan sua, gaueko 22:00etan.



Ekainaren 24an asteazkena, Gorriti hurbilduko da Kalezarrera, bere show-a eskaintzera.



Eta ohi bezala, sardin-janarekin amaituko dira festak.



ETORBIDEA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza • segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak • ispiluak
- barandak • kristal mota guztiak...

943 37 17 33- 610 45 93 45



Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.**

**INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA**

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com



**Josue
Igeltseritza S.L.**

 **606 37 21 05**

*Ondo pasa
San joanetan!!!*

**Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa**

Igeltseritza orokorra

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

UDA HONETAN ZATOZ **ZEN** EGITEIRA

eta nuke, baleki, zenekien...

*zitzailon
dezakezu
litzaidake*

*genekien
zetorren
raitteke*

AURKIEZAZU
ZURE BARNEKO OREKA,
EUSKARAREN BIDEZ

*eman izena
Gipuzkoako euskaltegietan*

#Kilometroak15 zirkuituak Kaxkoa inguratuko du

Klikmetroak.kilometroak.eus atarian sartu zaretenok, honex gero ezagutuko duzue urriaren 4ko jaialdiko zirkuitua. Prest baita. Kaxkoa inguratuko du, 5 kilometro luze izan eta milaka lagunek osatuko duten ibilbideak. Hala erabaki dute #Kilometroak15 ekimenaren baitan, eremu honetan lanean dabilen zirkuitu batzordeko kideek. "Jendea inertzia herrira sartzen da berez. Horregatik komeni da jaialdia Kaxkotik kanpora zabaltzea", adierazi diote NOAUA!ri. Batik bat, segurtasun arrazoiengatik hartu da erabakia. Milaka lagun batuko dituen jai gunea Kaxkoan biltzea, kudeazina litzateke eta batzordekoen esanetan. Halere, zintekin eta seinaleztatua egongo den arren, ez da ibilbide itxia izango, irekia baizik. Norberak nahierara ibili ahal izango du zirkuituan.

Lurjabeei, eskerrak

Guneak edo ibilbidea, antolaketa lanetan zer datorren lehenago, zirkuituko batzordekoek argitu digute. "Zirkuitua diseinatzeko duela 6-8 urte, Kilometroak antolatzeke egin zuten lehen eskaeran aurkezturiko ibilbidearen zirriborro hartan oinarritu ginen. Horren gainera lanketa egin dugu. Gero guneak non finkatu zitezkeen ikusi eta guneok ibilbide batekin lotu ditugu", gaineratu dute.

Esan beharrik ez dagoen arren, ibilbidea ezinbestean Usurbilgo ingurune fisikora egokitu behar izan dute. "Beste herriekin alderatuta, guneak finkatzeko zabalgun handirik ez izateak geure lana baldintzatu du", diotenez. Baina aztertzen egon ostean, zeuden aukeren artean, "ahal zen ibilbide eta gune egokienak aukeratu ditugu". Eskerrak eman nahi dizkiete guneak finkatzeko baliatuko dituzten lursailen jabeei, "baimena eskatu eta eragozpenik gabe eman digutela". Baita Ikastolen Elkarte biko ordezkari ere. "Laguntza handia izan dugu. Beraiek gidatu gaituzte guretzako berria dugun bide honetan", adierazi dute.



Zirkuituko eta trafikoko batzordeetako kideekin izan gara solasean. Jende gehiago behar dute eta bilerak deitu dituzte datozen asteetarako.

Hobekuntza lanak egiteko lagungarri

Tipi-tapa, metroz metro oinez osatu dute ibilbidea zirkuituko batzordekoek eta gertutik aztertu dute, segurtasun baldintza guztiak betetzen ote dituen. Txosten bat osatu dute gorabehera guztiekin. Zenbait kasutan hobekuntza lanak egiteko eskaera ere helarazi dute Udalera. Ibilbidea inguratzen duen guztiari zorrotz begiratu behar diote; argindar kaxak eta ur kontagailuak itxita dauden, bidean koxkak ote zeuden, tentsio handiko dorreak estali behar dituzte... Urriaren 4an, ehuneko ehuneko, denontzako sustatu nahi den Kilometroak ekimeneko zirkuitua segurua eta irisgarria izan dadin.

KLIKmetroak:

Ibilbidea sarean

Orain arte bezala jarraitzea nahi dute Klikmetroak egitasmoak sustatzaileek, klik eta klik ibilbidea ahal bezain bestetan osatu arte. "Jende askok metro asko egin ditzala nahi dugu". Modu horretan, urriaren 4an Usurbila etorri ezin duenak ere bere atxikimendua egiteko baliatu dezake Klikmetroak. Doan gainera. Metro bakoitza babesleak ordainduko du. Klikmetroak-eko sustatzaileek berri eman digutenez, 536 babesle lortu dituzte, baina "babesle berriak ere ongi etorriak izango dira". Babesleak lortzeko lanean dabil laguntzaile talde bat. Baina gehiago ere eskertuko lituzkete.

Klikmetroak.kilometroak.eus atarian sartu eta bertan dagoen for-

mularioa betetzera animatzen diet babesleei, eta bide beretik, herriarrei metroak egitera. Doan izanda, "metro bat egiteko aitzakiarik ez dago".

Trafikoa kudeatuko duen batzordea

Milaka lagun batuko dira Udarregi Ikastolaren aldeko festan. Batzuk autoz gerturatuko dira, besteak autobusez, trenaz, oinez, bizikleta gainean... Eta guztiak egoki bideratu beharko dira aparkaleku edota festa gunera, kolapsoak saihesteko. Joan etorrietarako azpiegitura sare osatzen ari da #Kilometroak15 ekimenaren baitan, trafiko kontuez arduratzen ari den lan taldea. "Ibilgailuak aparkalekuetara bideratzeaz, aparkalekuez, jendearen joan etorriez, bide itxieraz", eta abar. Urriaren 4an jendea behar dute laguntzeko.

"Jendea behar dugu"

Ibilbidean eta guneetan, aparkalekuetan, trafikoa bideratzeko... Gune guztietarako arduradun taldea osatu du #Kilometroak15 ekimenak. Baina arduradun bakoitzak, boluntario taldea falta du. Laguntzaileak behar dituzte trafiko eta zirkuitu batzordeetako kideek. Guztira, 200etik gora lagun. Eta herrikoak behar dute izan, herria eta herriarrek ezagutuko dituztenak.

Hilabete hauetan batzordeotan izena eman dutenekin eta urriaren 4an laguntzera animatzen zaiten guztiokin biltzeko, bi aurkezpen

ekitaldi deitu dituzte datozen asteetarako.

Bi bilera begibistan

Ekainak 22, astelehena

■ 19:00 Trafiko batzordeko bilera Potxoenean. Behar diren boluntarioak: 100 lagun.

Ekainak 29, astelehena

■ 18:30 Zirkuituko batzordeko bilera Udarregi Ikastolan. Beharrezko laguntzaileak: 150.

Urriaren 4an, 5 kilometro, 5 gune

■ Luzeera: 5 kilometro.

■ Gune kopurua: 5 gune.

■ Ibilbiderako sarbideak:

